

Zuzenketarako koadernoia

2
0
1
1
/
1
2

EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA

DBHko 2. MAILA

IRAKURTZEKO GAITASUNA

Izen-deiturak:

Ikastetxea:

Taldea:

Herria:

Data:

Jarraibideak

Proba honetan testu batzuk irakurriko dituzu eta irakurri duzunari buruzko galdera batzuei erantzungo diezu.

Galderak mota batekoak baino gehiagokoak dira. Galderetako batzuek lau erantzun dituzte aukeran, eta haietan zuzena dena aukeratu eta haren ondoan dagoen letra biribil batez inguratu behar duzu. Adibidez:

Zenbat biztanle ditu Iruñeak?

- A Bartzelonak bezainbat.
- B 200.000, gutxi gorabehera.
- C Milioi bat.
- D Zenbait milioi.

Erantzuna aldatzea erabakitzen baduzu, ezabatu **X** batekin lehen erantzuna eta erantzun zuzena biribil batez ingura ezazu, ondoko adibide honetan egin den bezala:

Zenbat biztanle ditu Iruñeak?

- A Bartzelonak bezainbat.
- B 200.000, gutxi gorabehera.
- C Milioi bat.
- D Zenbait milioi.

Beste galdera batzuetan, aldiz, eskatuko dizute (E) egia edo (G) gezurra erantzutea edo erantzuna idaztea puntuak dituen gunean:

Zein da Iruñeko tokirik ezagunena?

.....

Galdera batzuk errazagoak dira, eta beste batzuk zailagoak. Galdera bat ez baduzu ulertzen segi lanean eta saiatu geroago.



Proba hau egiteko 60 minutu dituzu.

Maider Unda, borrokalari olinpikoa: “Den-dena ematera joango naiz Londresera”



Elektronika ikasketak egin zituen, baina gusturago sentitzen da ardiak zaintzen eta ringean borrokan. Bietarako gaitasun fisikoa behar da, baina garrantzitsuena burua kontrolatzea eta erabiltzen jakitea da. Otxandioko Oleta auzoan bizi da, 33 urte ditu eta txapelketa ugari irabazi ditu: hamar aldiz izan da Espainiako txapelkun eta brontzezko domina bana lortu zituen, iaz, Munduko Txapelketan eta Europakoan.

Nolatan hasi zinen borroka librean?

Otxandion ikasi nuen, eta bertan ez zegoen beste kirolirik. Parean tokatutakoa egin nuen. Aurrena *sambo* ikasi genuen eta gero *borroka libre*a. Niri betidanik asko gustatu izan zait kirola. Hasieran, jolas bat besterik ez zen niretzat.

Artzaintzaren aldeko hautaketa egin zenuen...

Gurasoek jubilatu egin behar zuten. Eta hori galtzea pena zela iruditu zitzaidan. Orduan, artzaintzarekin jarraitzea erabaki nuen. Ahizpak eta nebak asko laguntzen didate nik ezin dudanean.

Zenbat orduz entrenatzen duzu?

Garaiaren arabera asko aldatzen da. Orain, laburragoak dira, eta gogorragoak. Egunean hiru orduz entrenatzen dut, goizean ordu eta erdi eta arratsaldean beste horrenbeste. Etxean dauzkat pisuak, baina teknikoak egitera Gasteizera joaten naiz. Nirekin borroka egingo duen norbait behar izaten dut horretarako. Nire entrenatzailea ere han egoten da.

Elikadura zehatz bat jarraitzen duzu?

Saiatzen naiz zaintzen. Datorren urtean zorrotzagoa izango da, Londreserako sailkapen froga baitugu. Nola elikatu zaren, gero asko nabaritzen da muskulazioan. Ez da komeni koipea hartzea. Pisua bai, baina muskuluetan.

Psikologia erabiltzen duzu aurkariari aurre egiteko?

Entrenamenduetan sufritu egin behar duzu, gero txapelketa momentuan sufrimendua heltzen denean hobeto eramaten jakiteko. Beste teknika batzuk ere badaude: ezin zara burumakur sartu ringera... Aurkariak badaki ze taktika erabiltzen dituzun. Beraz, taktika sorta bat prestatuta izan behar duzu beti, noizean behin aldatzeko.

Zer nolako laguntza izan da BAT Basque Team fundazioarena?

Nire kasuan oso garrantzitsua izan da babesa. Niri asko lagundu didate psikologikoki. Fundazioan teknikari asko daude, erabat zure gainean,

gomendioak ematen. Geuk ere izaten ditugu geure beheraldiak. Azken batean, kirolari bat ez da makina bat, pertsona bat da.

Ze oroitzen duzu Joko Olinpikoez?

Esperientzia paregabea izan zen. Publikoa oso desberdina. Giro aparta egon zen. Komunikabideek sekulako garrantzia eman zioten.

Eta ospetsu egin zara?

Goi mailara iritsi naizenez, errespetatua izatea lortu dut. Batez ere, irudia asko aldatzen da emaitzak ikusten hasten direnean. Badakit urte batzuetarako kontua izango dela. Baina batzuetan beharbada gehiegi da. Txapelketa bat hurbiltzen denean, entrenatzen ari bazara, dena planifikatu behar duzu, elkarrizketak barne. Ez dakit ezetz esaten eta gero larri ibiltzen naiz.

Borroka libretik bizi daiteke?

Ni orain bai, goi mailan nabilelako. Emaitzek agintzen dute. Baina, bestela, ezin da. Gorputzak mugatzen zaitu, ez adinak. Nik, gazteago nintzenean, lesio asko izan nituen, baina orain ondo nabil. Urte askoan jarraitu ahalko nuke, baina uste dut Londresekin konformatuko naizela. Borroka librearekin zerikusia duen zerbaitetan aritu nahiko nuke gero, baina denbora hartu eta pentsatu egin nahi dut ze neurriko lotura nahi dudana.

Londres, esperantzari leiho bat?

Esperantza domina lortzea da. Horren bila joango naiz, den-dena ematera. Aurrekoan, lehen aldia izan zen, Beijing-en, eta bosgarren geratu nintzen. Sekulako pena hartu nuen hain gertu geratuta. Azkenean, egun bakar batean jokatzeko duzu lau urtetan eginiko lana, eta egun horretan faktore askok eragin dezakete. Burua ondo prestatu behar duzu. Londres da nire hurrengo helmuga.

Nerea Pikabea.

Administrazioa euskaraz, 69 (2010eko uztaila).
Egokiturik.

1. Testua irakurri eta gero, aukera hauen artean zein da egia Mainer Unda-ri buruz?

- A. Ez du ikasketarik eta horregatik zaintzen ditu ardiak.
- B. Otxandion bizi da, entrenatzailea bertan duelako.
- C. Elkarrizketa egin zenean 33 urte zituen.
- D. Idazle ezezagun bat da benetan.

2. Zenbat orduz entrenatzen du Mainer Undak egunero?

- A. Egunero 3 orduz.
- B. Egunero ordu eta erdiz.
- C. Gogoaren arabera aldatzen da.
- D. Urtaroaren arabera aldatzen da.

3. Mainer Undari BAT Basque Team Fundazioak laguntzen dio. Elkarrizketan, nolako laguntza eskertzen dio fundazioari?

- A. Jarri dioten entrenatzailea
- B. Eman dioten beka
- C. Elkarrizketak planifikatzea
- D. Teknikarien gomendioak

4. Txapelketak, emaitzak, elkarrizketak eta abar direla medio Mainer Undak dio ez dakiela ezetz esaten eta gero larri ibiltzen dela. Zer esan nahi du?

- A. Ez daki txapelketei ezetz esaten.
- B. Ez daki emaitzei ezetz esaten.
- C. Ez daki elkarrizketei ezetz esaten.
- D. Ez daki entrenatzaileari ezetz esaten.

5. Etorkizunari begira, zer egin nahi du Mainer Undak?

- A. Borroka librearekin loturiko zerbaitetan aritu.
- B. Artzain ibili, besterik ez.
- C. Borroka librean jarraitu, ardiak utzita.
- D. Elektronikako ikasketekin jarraitu.

6. Zein da Mainer Undak buruan duen hurrengo txapelketa?

.....

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0	Erantzun okerra edo ez osoa.
1	1	Londreseko Olinpiadak.



Lagun Bat (Haur Kanta)

Bada gorroto dudan lagun bat.
Zuhaitzean gora egin nahi dudanean
“ez, ez, ez, hobeto ez,” esaten dit,
“laprast eroriko zara lurrera”.

Bada gorroto dudan lagun bat.
Futbolean jolastu nahi dudanean
“ez, ez, ez, hobeto ez,” esaten dit,
“ipurdi azpitik sartuko dizute gola”.

Bada gorroto dudan lagun bat.
Gustuko neskarengana hurreratzean
“ez, ez, ez, hobeto ez,” esaten dit,
“ez du zurekin nahiko berak”.

Bada gorroto dudan lagun bat.
Anaia txikiari musu eman nahi badiot
“ez, ez, ez, hobeto ez” esaten dit
“esnatu egingo duzu umea”.

Bada gorroto dudan lagun bat.
Lagun horren izena Lotsa da.
“Ez, ez, ez, inola ez” esaten diot gauero
“bihar, bihar ez dizut kasurik egingo bada”.



Kirmen Uribe, Rafa Rueda, Mikel Urdangarin,
Bingen Mendizabal

*Hitzak: Kirmen Uribe
Musika: Mikel Urdangarin*

7. Aurrean dugun informazioarekin, “Lagun bat” kantari dagokionez, zer ondorioztatu ahal dugu?
- A. Antzinako herri-kanta da.
 - B. Kirmen Uribek asmatutako poema da.
 - C. Bingen Mendizabalen bertsoa da.
 - D. Poema anonimo bat da.

8. Hitzak irakurri eta gero, Kasu honetan esaten dutena benetan sinetsi behar dugu?

- A. Ez, abestietan ez diogu letrari kasurik egin behar.
- B. Bai, lagunak gorrota ditzakegu.
- C. Ez, ezin dugu hartu "gorroto" bere zentzu estuan.
- D. Gorroto erabiltzen du errimarengatik.

9. Testu honek baditu:

- A. 20 lerro eta 5 ahapaldi (edo estrofa)
- B. 20 ahapaldi eta 5 bertso.
- C. 5 paragrafo.
- D. Errima zorrotzeko bertsoak.

10. Estrofa hauen egitura bada:

- A. Errepikatzen duen bertsoa, ekintza.
- B. Leloa, ezetza, deskribapena.
- C. Leloa, ekintza, lagunaren hitzak
- D. Ez dute egitura antzekorik

11. Kanta honetan azaltzen da:

- A. Lagunen arteko eguneroko elkarrizketa.
- B. Idazlearen barruko pentsamendua.
- C. Bizitzan inoiz gertatzen ez dena.
- D. Istorio bat, besterik ez.

12. "Laprast eroriko zara lurrera" honela ere esan genezake:

- A. Kolpe bat hartuko duzu.
- B. Mina hartuko duzu.
- C. Irristatuko zara lurrera.
- D. Futbolean ari bazara eroriko zara.

13. Pentsatu eta idatzi beste izenburu bat kantarako, izenburu honekin kantaren mezua adierazi behar duzula kontuan hartuz:

.....

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0	Erantzun okerra edo ez osoa.
1	1	Honelako erantzunak, adibidez: <ul style="list-style-type: none"> • <i>Lotsa, nire laguna</i> • <i>Lotsa, lagun txar bat</i> • <i>Lagun batzuk kaltetako dira</i> • <i>Nolako lagunak ditudan!</i> • <i>Nire lagunak!</i> • <i>Gorroto dut lagun bat</i> • <i>Lagun batzuekin kontuz ibili</i> • ...

14. Poesiek tonu desberdinak adierazi ohi dituzte, nahiz eta batzuetan zaila izan bat soilik aukeratzea. Aukeratu ondorengo multzoetan poesia honen tonua egokien adieraziko luketen hitzak:

- A. Goraipatzailea, laudoriotsua
- B. Ironikoa, satirikoa
- C. Fantastikoa, absurdoa
- D. Hausnartzailea, erreflexiboa

15. Poemaren azken paragrafoan zera dio: “bihar, bihar ez dizut kasurik egingo bada”. Hori bera honela adierazi daiteke:

- A. “bihar, bihar ez dizut kasurik egingo beharbada”.
- B. “bihar, bihar ez dizut kasurik egingo ba”.
- C. “bihar, bihar ez dizut kasurik egingo akaso”.
- D. “bihar, bihar ez dizut kasurik egingo badaezpada”.

Arantza eta Baztango mendi itzuliak eginen dira heldu diren igandeetan

30 eta 38 kilometroko zirkuituak izanen dira

TTIPI-TTAPA


Mendian ibiltzea maite dutenek aukera ederra izanen dute datozen igandeetan, Arantza eta Baztango Mendi Itzuliak eginen baitira bat bertzearen ondotik. Ekainean, berriz, Sara eta Lesakakoek hartuko dute lekukoa eta irailean Aresokoak.

ARANTZAKO ITZULIA MAIATZAREN 23AN

Bi urtetik behin egiten den Arantzako ibilaldiarekin hasiko dute mendiz-mendiko itzulia mendizaleek. Elkaitza Elkarteak antolatutako Arantzako Mendi Itzulia maiatzaren 23an eginen da, igandearekin. Herriko plazatik abiatu eta leku berean emanen zaio akabera. Bitartean, Arrata errekatik jauntsiz, Aranibar baserria, Unanu, Itsaszelaia, Izu, Oilargata, Ibintza, Ekaitza, Illurdi, Mendaur (aukerakoa), Mairubaratza eta Zepuruko tontorrak pasatuko dituzte partehartzaileek.

Guztira 30 kilometroko itzulia izanen da, baina Mendaurrera joateko hautua egiten dutenek kilometro pare bat gehiago. Desnibela, berriz, 1.550 metrokoa izanen da. Ohi bezala, ibilbidean hornidura eta osasun zerbitzuak eskaintzeko postuak paratuko dira. Izen-emateko bi aukera daude: egun berean, 06:30etik 08:00etara, eta 12 euro ordainduta, edo www.mendiitzulia.com atarian. Ibilbidea 07:00etatik 08:00etara hasiko da.

Parte hartzaile bakoitzari dagokion txartela irteerako kontrol postuan emanen zaio eta hura erakutsi beharko du gainerako kontrol postuetan. Bukarera, parte hartzaile bakoitzari oroigarri bat emanen zaio.



30 kilometro eta 1.550 metroko desnibela dituen itzulia da Arantzakoa. Bosgarren edizioa da aurtengoa eta maiatzaren 23an izanen da.

BAZTANGOA MAIATZAREN 30EAN

Baztango Mendigoizaleek antolatutako XVII. ibilaldia hilabeteko azken igandean, maiatzak 30, eginen da, eta aurtengoa Lekarozen hasi eta akituko da.

38 kilometroko luzera eta 2.000 metroko desnibela duen itzulia egin beharko dute mendizaleek eta goizean 07:00-07:30ean abiatuko dira frontoitik, 10 euro ordainduta. Izena aitzinetik emateko www.mendizmendi.com web orrian egin daiteke.



38 kilometro eta 2.000 metroko desnibela ditu Baztango itzuliak. Hamazazpigarrena da aurtengoa edizioa. Lekarozen hasi eta akituko da. Maiatzaren 30ean izanen da.

Irteera 260 metrotan dago eta ibilbideko punturik altuena Alkurruntz mendia -940 metro- izanen da. Frontoitik abiatutakoan, hauek izanen dira ibilbidean igaroko diren lekurik aipagarrienak: Beltzuri, Eskisaroi, Zaldizuri, Alkurruntz, Betarteko lepoa, Unboto eta berriz Lekarozera buelta. Lau kontrol-puntu izanen dira: lehena Etxebertzeko bordan (11. kilometroa), bigarrena Zaldizurin (22. kilometroan), hirugarrena Betarteko lepoan (28. kilometroan) eta azkena Lekarozko frontoian (38. kilometroan).

Informazio gehiago: www.baztangomendigoizalea.org atarian.

EKAINEAN GEHIAGO

Arantza eta Baztangoaren ondotik, **Sar**ako mendi itzulia ekainaren 6an eta **Lesak**akoa ekainaren 13an izanen dira, eta Aresokoa, irailaren 5ean. Egunak hurbildu ahala emanen ditugu xehetasunak.

16. Mendian ibiltzea maite dutenek, zer aurkitu ahal dute testuan?

- A. Maiatzetik iraila arte eskaintza antolatuak badituzte.
- B. Hemen lau ibilaldi zehaztuta badituzte.
- C. 68 kilometro ibili beharko dituzte.
- D. Bi urteko eskaintza badute.

17. Itzulien artean, zein dago hobeki antolatuta?

- A. Elkaitza elkarteak egiten duena, kontrol txartelak badaudelako.
- B. Datuen arabera, bietan dena oso kontrolatuta dutela ematen du.
- C. Arantzakoa, esperientzia handiagoa badutelako.
- D. Baztango Mendizaleek antolatutakoa, merkeagoa delako.

18. Lesakako eta Aresoko ibilaldiei buruz ez dute apenas informaziorik eskaintzen. Zergatik?

- A. Geroxeago direnez, ez dute gauza handirik prestatu.
- B. Testuaren arabera, antolatzaileek oraindik horren berri eman nahi ez dutelako.
- C. Beste ibilaldien arrakastaren arabera besteak era batean edo bestean antolatuko dituztelako.
- D. Aurrerago emango dituzte argibideak.

19. Kontrol-puntuak eta txartelak prestatzen dituzte. Zure ustetan, jendeari begira zein izan daiteke arrazoirik garrantzitsuena?

- A. Honela jendeak antolakuntza hobea dela pentsatzeko.
- B. Inor mendian galtzen ez dela ziurtatzeko.
- C. Oroigarriak ongi kontrolatzeko.
- D. Ogitartekoak egunen zehar eskaintzeko, oso ibilaldi luzeak direlako.


20. Arantzako mendi-itzuliaren grafikoan mendiak berdez eta gorritz margotuta daude. Zer adierazten da bi kolore ezberdin horiekin?

.....
.....
.....

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0	Erantzun okerra edo ez osoa.
1	1	<p>Mendi-itzuli horretan 2 aukera daudela: Mendaur mendia igo eta ondoren Arantzara jaistea, eta Mendaur mendia igo gabe uztea. Esate baterako:</p> <ul style="list-style-type: none">• <i>Mendi-itzulian batzuk Mendaur mendira igoko dira eta beste batzuk ez.</i>• <i>Mendi-itzulia bi modutan egin daiteke, Mendaur mendia igoz edota igo gabe.</i>• <i>Mendaur mendira igotzea aukerakoa da.</i>• ...

Pirata baten kutxan aurkitutako uharteko mapa

Ametsak eta desirak ez al dira errealitatearen atal? Izan al da sekula urte bila ibili ez den umerik? Edo pirata, militar buruzagi ala bide-lapur izan ez denik? Honelako gogoetak zituen buruan R. L. Stevensonek *Altxor Uhartea* abenturazko nobela idazterako orduan. Jim Hawkins mutikoa du kontalari eta heroi nagusi eleberriak, eta haren begietatik ikusiko ditu irakurleak altxor bila espedizioan parte hartzen duten guztien ezaugarriak. Helduen mundura egindako lehen bidaia da hura gaztearentzat, eta maiz nahastuta geratzen da ezagutzea egokitu zaion jendearen aurrean, ez baita gai haien artean zintzo-zintzorik, ez gaizto-gaiztorik aurkitzeko. Batere gustuko ez zuen pirata baten marinel-kutxan aurkitu zuen Flint itsaslapur beldurgarriaren altxorra gordetzen zuen uhartearen mapa. Konfiantzako pertsonari bere aurkikuntzaren berri eman orduko, harantz abiatzea erabaki zuen espedizio oso batek, mutikoa tartean zela, *Hispaniola* baleontzian. Eskifaian, ordea, isilka sartu zitzaizkien altxorraren mapa bereganatzeko grinaz zebiltzan itsaslapur ugari. Baina horretaz berandu ohartu ziren, enbaten erasoaren itsasoan jasaten ari zirenean.



Titulua:	“Altxor uhartea”
Autorea:	R. L. Stevenson
Itzulpena:	María Garikano
Argitaletxea:	ELKAR
Orrialde kopurua:	316
Prezioa:	19,45 €

ARGIA. 2008ko uztailaren 27a.

21. Zure ustez zein izango litzateke testu honen igorlea?

- A. R.L. Stevenson
- B. Pilar Iparragirre
- C. Ez dago jakiterik inork ez duelako sinatu.
- D. Maria Garikano

22. Eta hartzailea? Nori zuzendua legoke testu hau? Aukeratu erantzunik zehatzena.

- A. Pirata liburuak gustukoak dituzten irakurleei.
- B. Stevensonen liburuak gustukoak dituzten irakurleei.
- C. Euskaraz irakurtzen dakien edozein irakurleri.
- D. Argia aldizkariko irakurleei eta euskarazko liburuak irakurtzea gustukoa dutenei.

23. Zein izango litzateke testu honen komunikazio asmoa? Aukeratu erantzunik zehatzena.

- A. Irakurleak entretenitzea.
- B. Liburuari buruz iritzia ematea.
- C. Liburuaren kritika egitea.
- D. Irakurtzeko zaletasuna bultzatzea.

24. Nor da Altxor uhartea liburuaren kontalari edo narratzailea?

- A. R. L Stevenson
- B. Pilar Iparragirre
- C. Jim Hawkins
- D. Ez dago jakiterik liburua irakurri gabe.

25. Zein genero literariotan sailkatuko zenuke Altxor uhartea liburua?

- A. Abenturazko nobela.
- B. Nobela historikoa.
- C. Nobela errealista.
- D. Komiki bat.

26. Testu honetan azaltzen da liburuan azalduko diren zenbait pertsonaia. Nortzuk?

- A. Jim Hawkins
- B. Flint itsaslapurra
- C. Jim Hawkins eta Flint itsaslapurra
- D. Stevenson, Jim Hawkins eta Flint itsaslapurra.

27. Dakizun bezala, kontakizun askok (ipuinek, nobelak,...) ondorengo egitura izaten dute: Hasierako egoera – Arazoa – Ekintzak – Bukarako egoera.

Testuan zenbait datu ematen dira, eta datu horiek atal batekoak edo bestekoak izan daitezke. Ipini X aipatzen den datu bakoitzari dagokion atalean:

	HASIERAKO EGOERA	ARAZOA (GATAZKA)	EKINTZAK	BUKAERAKO EGOERA
Pirata baten marinel-kutxan aurkitu zuen Flint itsaslapur beldurgarriaren altxorra gordetzen zuen uhartearen mapa.	X			
Konfiantzako pertsonari bere aurkikuntzaren berri eman orduko, harantz abiatzea erabaki zuen espedizio oso batek, mutikoa tartean zela, <i>Hispaniola</i> baleontzian.	X			
Eskifaian, ordea, isilka sartu zitzaizkien altxorraren mapa bereganatzeko grinaz zebiltzan itsaslapur ugari. Baina horretaz berandu ohartu ziren, enbaten erasoia itsasoan jasaten ari zirenean		X		

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0	Erantzun okerra edo ez osoa.
1	1	Erantzun zuzen bat.
2	2	2 erantzun zuzen.
3	3	3 erantzun zuzenak.

28. Altxor uhartea liburuko protagonistak jende asko ezagutuko du liburuan zehar, baina nolako jendea aurkituko du pertsonaia horien artean?

- A. Gehienak zintzoak.
- B. Gehienak gaiztoak.
- C. Ez gaizto-gaiztoak, ez zintzo-zintzoak.
- D. Gaizto-gaiztoak eta zintzo-zintzoak.

29. Zer esan nahi du “Helduen mundura egindako lehen bidaia da hura” esatean?

- A. Itsas espedizio batean parte hartzen zuen lehen aldia zela.
- B. Itsasoan belaontzian ibiltzen zen lehen aldia zela.
- C. Etxetik irteten zen lehen aldia zela.
- D. Jende helduekin harremanak izan zituen lehen aldia zela.



Marraskilaria: Patxi Huarte "Zaldi Eroa"
De rerum natura bilduma, Elkar, 2010, Donostia.

30. Zein da umorezko tira honen izenburua?

- A. Mieltxo
- B. Plastilina irakaslea
- C. Mieltxo Plastilina irakaslea
- D. Egokitze astea

31. Nor da komiki honen protagonista?

- A. Polizia
- B. Haurrak
- C. Irakaslea
- D. Zaldi eroa

32. Non daude komiki honen pertsonaiak?

- A. Ospital batean eta kalean.
- B. Komisaldegi batean eta eskola batean.
- C. Komisaldegi batean eta hizkuntza eskolan.
- D. Kanpaldi batean.

33. Poliziak, abisua entzun bezain pronto:

- A. Nork deitzen duen eta zer gertatzen zaion jakin dezake.
- B. Norbait adarra jotzen ariko dela pentsatuko du.
- C. Norbait arriskuan dagoela pentsatuko du.
- D. Ez dio deiari inolako garrantzirik emango.

34. Komikian ikusten dugun portaeraren arabera, pertsoez inguratuta telefonoz hitz egiten ari dena...

- A. Bere lanean pertsona trebatua izango da.
- B. Kanean dagoen pertsona famatua izango da.
- C. Lanean itota dagoen pertsona bat izango da.
- D. Txantxetan ari den norbait izango da.

35. Zeri egiten dio erreferentzia Egokitze asteak?

- A. Ikasturte hasierako lehen asteari.
- B. Ebaluazio aurreko asteari.
- C. Ikasturteko edozein asteri.
- D. Ikasturteko bukaerako asteari.

36. Umorezko tira hau , non ager daiteke?

- A. XIX. mendeko aldizkari batean.
- B. Gaur egungo egunkari batean.
- C. Zientziako liburu batean.
- D. Olerkigintza liburuetan.

37. Non datza umorezko tira honen grazia? Adierazi labur-labur komikian gertatzen dena.

.....

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0	Erantzun okerra edo ez osoa.
1	1	<p>Komikian gertatzen denaren deskribapen labur bat:</p> <ul style="list-style-type: none"> • <i>Mieltxo gelan dago bere ikasleekin, lehenengo egunetan (“egokoitze astean”), ikasleak zalapartan ari dira, eta Mieltxok uste du aurrean 25 pertsona erasokor dituela eta poliziarik deitzen dio, baina umeak dira.</i> • <i>Mieltxok poliziarik deitzen dio laguntza eske, 25 pertsona erasokor aurrean dituelakoan</i> • <i>Mieltxok poliziarik kezkatzen du, laguntza eske deitzean, baina umeak dira.</i> • <i>Poliziarik ez daki deitzen duena irakaslea denik.</i> • ... <p>Ontzat emango dira, baita ere, komikiaren gaineko analisiak, hausnarketa orokorrak, bineta edota diseinuari buruzko azalpenak...</p>